

Egun on,

Jabi Alfaro naiz, [Elkartenet Hezkuntza Elkarte](#)ko kidea, eta lehenik eta behin, eskainitako arreta eskertu nahi dizut.

Euskal Herriko ikastetxeetan Eskola 2.0 programaren barnean banatutako **Toshiba Satellite L735-13g ordenagailu (eskola 2.0 gorriak)** harira idazten dizuet, azken hilabeteetan baja ematen ari direnak ordenagailu berriengatik aldatzen dituztelako.

Modelo honen ezaugarriak gure jardueretarako oso egokiak direla ikusi dugu eta, ahal izango balitz, **mesedez eskatzen dizuegu zakarrontzira bota ez ditzazuen (ezta Garbiguneetara ere)**, haien bila joateko prest egongo ginateke eta. Zuen laguntzak aldea suposatuko luke esku artean ditugun proiektu solidarioen garapenean.

Zuei jakinarazteko, ordenagailu hauentzat bizitza zikloa luzatzeko bi aukera eskaintzen dizkizuegu:

- **Zuen ikastetxeetan “Ekonomia zirkularra” tailerra sortzea**
 - **Helburua:**
 - Ikasleek ordenagailu baten osagaiak ezagutzea eta aldaketa txikiak, hobekuntzak eta konponketak egin ahal izatea ordenagailu zaharrak berrerabiltzeko.
 - Ikasleek Berrerabilpenaren kontzeptua ezagutzea eta ulertzea (Murriztea, Berrerabiltzea, Birziklatzea)
 - **Prestakuntza-ekintza:** ordenagailu eramangarri baten prestazioak hobetzea, disko zaharra (HDD) moderno batekin (SSD) aldatuz eta RAM memoria gehiago gehituz.
 - Erantsita, pasaden urtean Bilboko udalaren eta Guraso Elkartearen laguntzarekin, [Bilboko Miribilla eskola](#)n egindako tailerra bidaltzen dizuegu.
- **Elkartenet elkarteari dohaintzan ematea proiektu sozialei bideratzeko**

Gure jarduerak aurrera eraman ahal izateko material egokia lortzea ezinbestekoa da, eta zuek dohaintzan emandako ordenagailuak abian ditugun hurrengo proiektuetan erabiltzea da gure asmoa:

- [Mugarik gabeko ikasgelak: Agharas](#) elkartearekin lankidetzan, **Marokoko hegoaldean 12 ikasgela informatiko** garatzeko helburuarekin sortutako proiektua.
- [Txikilinux-XILABA](#): Xiberoa, Lapurdi eta Baxe Nafarroako ikastoleentzako proposatutako sistema eragilea. Otsailaren 18an Donibaneko ikastolan estreinatuko duguna.
- TxikiLinuxen aplikazio didaktikoei buruzko prestakuntza-tailer desberdinak.

Informazio gehiago behar izango bazenu, jarri gurekin harremanetan lasai. Eduki dezakezun edozein zalantza argitzeko prest gaude.

Aldez aurretik eskerrak emanez, agurtzen naiz.

Adeitasunez,

Jabi Alfaro Garcia

Elkartenet: Informatika sozial eta jasangarria